DROGETEN ITURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria. 295. zenbakia. 2020ko abendua



Irune Astarloa, yogaren bidean

ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Ikastaroa 2021eko urtarriletik ekainera

TALDEAK, MAILAK ETA ORDUTEGIAK

ORDUTEGIAK	9:30-11:30 / 18:00 - 20:00
MAILAK	A2 - B1 - B2 - C1
MATRIKULALDIA	Urtarrilaren 7tik 22ra

HABEren AZTERKETAK

A1 eta A2 azterketak euskaltegian

Langabetuek prezio erdia
Diru-laguntzak

ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g, 2. solairua
Tel: 943 17 09 25
euskaltegia@udalermua.net

ARGITARATZAILEA:
Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:
Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:
Alazne Aiestaran,
Amaia Arginzoniz,
Estibalitz González,
Jon Saez,
Libe Solozabal,
Dorleta Vidal
eta Irati Yarza.

KOORDINAZIOA ETA MAKETAZIOA:
Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:
Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:
Irune Astarloa.

LAGUNTZAILEAK:
Naroa Beitia,
Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López eta
Valentin Mugarza.

ARGAZKIAK:
Abeletxeko familiak,
Kepa Antxia, Irune Astarloa,
Danobat, EITB, Ermua BHI,
Aitor Garcia,
Eider Gisasola,
Estibalitz González,
Uxune Hernandez,
Valentin Mugarza,
Jon Saez,
Libe Solozabal,
Maialen Ugena
eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:
Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:
Piedi Eizagirre,
Ayoub Hdidou
eta Olatz Vidal.

TIRADA:
2.425 ale.

ISSN:
1133-973X.

LEGE GORDAILUA:
SS-213/1994.

Drogetenitturrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Gaia: gabon kanta

Dringilin dron

(Entzuteko: www.alboka.es)

Dringilin dron
gaur Gabon,
dringilin dron
gaur Gabon,
sabela betea daukat eta
besteak, hor konpon!

Mazkelo bete aza egosi,
hori, zuri eta gorria,
berehala iruntzi neutsazan
azkenengoko orriak.

Hiru hortzeko tresnatxo batez,
morokil-ore bailitzan,
ezti-lapiko handizko bati
barrua huts-huts ein neutsan.

Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA.....4
Uxune Hernandez (Mexiko)
ELKARRIZKETA.....5-7
Aitor Garcia
MALLABIAN ZER?.....8-9
Irune Astarloa yogaren bidetik
ERMUAN ZER?.....10-11
Abeletxeko senideak / Euskaraldia
EROSKETA GIDA.....12-13
MOTZEAN.....14
Konfinatoia lehiaketako saridunak
ERMUAN ZER?.....15
Ermua BHIko murala
BOTEPRONTOAN.....16
Josu Gomez
KIROLZALE.....17
Ermuko errugbi jokalariak
IRITZIA.....18
Beldurra
ZORION-AGURRAK.....19
Saldu, erosi edo agurtu
ANTZINAKOAK.....20
Ermuko eta Mallabiko argazkiak
SAREAN GALDEZKA.....21
Non egingo dituzu Gabonetako erosketak?
URTARRILEKO AGENDA...22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

MALLABIKO UDALA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Uxune Hernandez Zuazua

Erdi mexikarra, erdi euskalduna. Han jaio bazen ere, hamar urte zituela gurasoek amaren jaioterrira bueltatzea erabaki zuten, printzipioz urtebeterako. Baina sei urteko egonaldia bilakatu zen hura. Orain psikologoa da, bi seme-alabaren ama eta Waldorf eskola bateko sortzailea.

- Erabaki erraza izan zen familiarentzat, zuk 16 urte zenituenean, Mexikora bueltatzea?

Nik ez nuen erabaki hori hartu, gurasoek hartu zuten. Niretzako ez zen batere erreza izan 16 urterekin Tijuanara heltzea, aldaketa oso zaila izan zen. Sentitzen nuen beste planeta batekoa nintzela, kultura oso ezberdina zen momentu hartan. Duela zortzi urte nire jatorriaren bila hasi nintzen, eta pertsona heldu moduan hartu nuen Mexikotik alde egiteko erabakia. Momentu hartan Guadalajaran bizi nintzen, eta Bartzelonara joan nintzen master bat egitera. Azkenean, izeko batengana joan nintzen Ermura bizitzera, lana topatu eta ia hiru urtez egon nintzen bertan. Baina, Ermuan nengoela, pare bat hilabeterako Tijuanara bidaia bat egin nuen, eta konturatu nintzen Mexikok ni deitzen ninduela. Hiria momentu horretan oso egoera txarrean zegoen, indarkeriaz lepo. Beti gustatu izan zait lanketa soziala, eta ikusi nuen Tijuanan lan pilo bat egin nezakeela. Gainera, aita gaixorik neukan, eta ama eta ahizpa hemen nituen.

- Zelan moldatzen zara euskararekin?

Hamar urterekin ikasi nuen euskara, Ermura etorri nintzenean. Heldu nintzen lehenengo urtean Santiago Apostol eskolan ikasi nuen, eta hurrengo ikasturteak Ikastolan eman nituen. Urtebetean euskaraz oso ondo hitz egiten ikasi nuen, izan ere, amak euskaraz hitz egiten zigun ahizpari eta bioi umeak ginenean. Ni ere saiatu nintzen nire alabarekin, eta jaio zenean euskaraz bakarrik hitz egiten nion, baina orain zailagoa da.

- Zerbait botatzen duzu faltan?

Batez ere familia eta lagunak. Asko gustatzen zait Euskal Herriko kultura, Tijuana oso hiri handia eta ezberdina da. Bestalde, hau oso sikua da, eta beste lan-daretza mota bat daukagu, ez ditugu hango baso eta mendi berdeak, ederrak eta politak.

- Nolakoa da zure egun arrunt bat? Zer egiten duzu denbora librean?

Proiektu bati ekin nion bikotekidearekin, alabak hiru urte zituenean. Banekien niretzako ohiko heziketa ez zela bidea, eta Waldorf pedagogian oinarritutako eskola bat zabaltzea erabaki genuen, abentura bat. Mexikoko iparraldean ez zegoen bat ere ez, gertuen daukaguna San Diegon dago, AEB-tan. Eurekin harremanetan jarri ginen eta pilo bat lagundu ziguten. Lan handia egin dugu, baina 18 familia hasi ginen hiru urteko umeekin, eta orain laugarren urtean gaude, eta haur hezkuntzako hiru gela ditugu, eta lehenengo eta bigarren mailak. Hori da nire lana, nire bizitzako proiektua, eta nire ekarpena bizi naizen hiria aldatzeko. Pentsatzen dut gauzak aldatzeko umeekin egin behar dugula lan, eta familiekin. Nire ekintza soziala eta politikoa da, oso garrantzitsua niretzat. Lan hau ez da lana, bizimodua da. Oso proiektu sakona sustatzen ari gara, ez delako bakarrik eskola bat: hor ematen dugu denbora guztia eta diru guztia ere.

- Noiz egon zara Ermuan azken aldiz? Berriro bueltatzeko asmorik?

Duela bost urte egon nintzen alabarekin, izeko bat oso gaixorik neukan eta agurtzera joan ginen. Oso bidaia polita izan zen. Ez dakit noiz bueltatuko naizen, orain lau gara familian, seme bat ere daukagulako. Baina badut gogoa bikotekideak eta semeak ere Euskal Herria ezagutzeko, nire ametsa da. Alaba jo eta ke dabil euskararekin, eta Pirritx eta Porrotx ezagutu nahi ditu, zoratu egiten da! Eta ziur momentu horretarako semea ere jarraitzaile sutsua izango dela! Hala ere, ez daukat Ermura bizitzera bueltatzeko asmorik. Nire historian oso momentu gogorrak egon dira, eta oso politak ere bai, eta beti eskertuko diet amari eta aitari hainbeste lekutan bizi izateko aukera eman izana.

Libe Solozabal



Aitor Garcia Amalfin (Italian).

Aitor Garcia, automozio teknikaria:

“Hilabete Ermutik irten gabe egoteak aspertu egiten nau”

Automozioko goi-mailako ikasketak Elgoibarko Mekan egin ondoren, Aitor Garcia Gamito ermuarra Eibarko ABC Compressors enpresan sartu zen ikasketetako praktikak egitera. Praktiketako hileak burutu ondoren ofizialki sartu zen bertan lanera eta urtebete muntaian egon ondoren, Laguntza Teknikoko Zerbitzuan lan egitea eskaini zioten. Gertukoenekin lasai asko hitz egin ondoren, lan berria onartzea erabaki zuen eta azken urteetan 13 herrialde ezberdin ezagutzeko aukera izan du. Egunerokotasunak sortu dezakeen monotonia eta errutinatik at bizi da, eta epe laburreko planak egiten ditu, ezin duelako aurreikusi epe luzera non egongo den.

- Nolakoa da denbora luzearen ostean etxera buelta?

Etxera heltzea eskertzen da, etxeko goxotasun hori… baina egun batzuetara, errutinan sartzen banaiz, aspertu egiten naiz eta berriz joateko gogoa izaten dut. Lan honek ematen didan gauza gogokoenetako bat da errutinarik ez izatea. Kanpora joatean gauza berri asko eta jende berri asko ezagutzen dira, eta egun guztiak ezberdinak dira hein handi batean. Hilabete Ermuan eginez gero, aspertu egiten naiz.

- Zertan datza zure lana?

Eibarko ABC Compressors enpresak konpresoreak sortu eta mundu osora saltzen ditu. Eibarren, Txinan eta Brasilen ditu egoitza nagusiak. Nire lana konpresore berriak martxan jarri eta arazoak konpontzea izaten da. Gainera, urtero konpresoreei mantentze-lanak egin behar zaizkie, eta horrek ere kanpora joatera behartzen gaitu.

- Gaur egun mundu osoan zehar bidaiatzen duzu. Ikasten zeundela Erasmusa egitea pentsatu zenuen?

Ez, ikasketak bukatu eta lanean hasi nahi nuen. Izan ere, errazagoa iruditzen zitzaidan hemen praktikak egitea lanean hasteko. Eta hala izan zen: praktikak ABCn egin nituen eta bukatzean plantara sartu nintzen lanera.

- Konfinamendu egoeran bidaiatu behar izan duzu?

Euskal Herrian konfinamendua hasi baino lehen Italian nengoen, eta bertan nengoela Italiako presidenteak jakinarazi zuen herrialdea itxiko zutela. Enpresarekin kontaktuan jarri nintzen, baina Italiakoek esan zuten lana bukatu arte ezin nintzela itzuli. Esan zuten arau hura beldurra sartzeko besterik ez zela. Azkenean hemengoekin hitz eginda lortu genuen konpresorea martxan jartzea, gutxienez lanean jarraitu ahal izateko, eta gau horretan bertan itzuli nintzen. Itzuli eta gutxira hemen ere konfinatu gintuzten, eta bi hilabete inguruan ez nintzen inora joan lanera. Gero, Alemaniara bidali ninduten. Hemendik Alemaniara autoz joan behar izan nintzen bakarrik, aireportuak itxita zeudelako. Pare bat aste egin nituen bertan, eta etxera buelta; beste pare bat aste hemen, eta berriz autoa hartu eta Alemaniaraino hiruzpalau asterako. Hau izan da autoz egin dudan bidaiarik luzeena, normalean autoa Frantziarako bakarrik erabiltzen dugulako. Gehienetan hegazkinez mugitzen gara.

- Zein herrialdetan egon zara lanean zaudenetik?



Aitor Garcia Egipton.

Japonia, Myanmar, India, Sri Lanka, Hegoafrika, Egipto, Tanzania, Espainia, Frantzia, Alemania, Italia, Polonia, Txekiar Errepublika eta Ameriketako Estatu Batuak. Eta hurrengoa Kanada izango da, urtarrilean.

- Eta zure kabuz oporretan?

Finlandia, Italia, Andorra eta Polonia. Poloniara izan zen kanpora atera nintzen lehen aldia. Lagun batzuk Erasmusean zeuden, eta bisitan joan ginen.

- Joango zinatekeen eta oraindik egon ez zaren herrialderen bat badago ?

Bai, Latinoamerika.

- Lanean zuk proposatu duzu nonbaitera joateko?

Bai, nik proposatu nituen Estatu Batuak eta Kanada.

- Hurrengo bidaia Kanadara egingo duzu . Nola aurreikusten duzu?

Oso hotza! Herrialde berria da niretzat, eta oso motibatua noa, gogo askorekin. Ez dago zehaztuta zenbat denborarako joango naizen, uste dut bizpahiru astetarako. Neure burua antolatzen saiatuko naiz lekuak bisitatzeko eta, hemen momentuz ezin denez, eski pista batzuk probatzeko. Arazoa da leku asko bisitatu nahi izango ditudala, eta ez dut uste denerako astirik izango dudanik.

- Non igaro duzu denbora gehien?

Hegoafrikan, 28-29 egun igaro nituen; AEBn, 23-24 egun; Alemanian kotxearekin egindako bidaian pare bat aste.

- Egun libreak izaten dituzu lekuak ezagutzeko?

Ez beti, baina antolatu naitekeenean bai. Adibidez, ordu gehiago sartzen ditut lehen egunetan azken egunetan libre izan eta lekuak ezagutzeko. Bestela, aste batzuetarako noanean, as-

"Tanzanian eta Hegoafrikan oso gustura egon nintzen; India, aldiz, ez zitzaidan gustatu"

mari asun
LORADENDA
Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

ileapaindegia
Silvia
peluquería
Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00
943 170474
688819336

teburuak edo igandeak gutxienez jai izaten ditut.

- Noiz arte egongo zinateke lan honetan?

30 edo 35 urte ingurura arte, baina zaila da esatea. Orain gustura nago, baina baliteke urte batzuen buruan nahiago izatea leku batean finkatzea. Lan honetan ez dakit noiz joan beharko dudan: batzuetan emergentziak gertatzen dira eta joateko eskatzen didate. Gaur egun, loturarik ez dudanez, ez dut joateko arazorik; baina baliteke gerora, beste erantzukizun batzuk izatea, eta horren libre ez egotea emergentzia horiei erantzuteko. Adibidez, Sri Lankara bidaia egun batetik besterakoa izan zen. Bulegoan nengoen eta hurrengo egunean joan behar nuela esan zidaten. Ezetz esateko aukera dut, baina kasu puntual eta arrazoitua izan behar da.

- Zer da lan honetan gustukoen duzuna?

Ezagutzen ditudan lekuak eta jendea. Horrez gain, ingelesa praktikatzeko aukera izan dudala. Era berean, neure burua aske izaten lagundu dit. Azken finean munduko beste puntan bakarrik egoten naiz, eta arazoak konpondu behar ditut momentuan dauzkadan baliabideekin. Eta ez da berdina konponketa bat egin behar izatea Alemaniako baliabideekin, edo Tanzaniakoekin.

Aitor Garcia Egipton.

- Eta gutxien?

Etxetik kanpo denbora asko pasatu beharra. Ez naiz kexatzen, gustura nagoelako, baina batzuetan gustuko ditudan plan batzuk bertan behera utzi behar izaten ditut.

- Bakarrik bidaiatzen duzu?

Normalean bai, baina batzuetan bi pertsona joaten gara egin beharreko lanak hala eskatzen duelako. Gehienetan bakarrik joaten naiz eta gero bertan, enpresak jarritako zerbitzuarekin batzen naiz.

- Kontaktua mantentzen duzu kanpoan ezagututako jendearekin?

Frantzesak ezik beste denak irekiak dira: ez dakit haien ohitura itxiegia den edo zer, baina haiekin ezinezkoa izaten da! Gainontzekoekin askotan bai. Duela gutxi, adibidez, Ameriketako lankide batek idatzi zidan ea hurrengoan ere ni joango naizen galdetzeko.

- Denbora honetan izan da bitxikeriarik?

Ba Tokion nengoela, 3 egun hartu nituen hiria bisitatzeko. Hirigunera joan nahi nuen, pentsaturik bertan egongo zirela ikusteko gauza gehienak. Tartean munduko zebra-biderik handiena (Shibuyan). Taxi bat hartu eta hirigunera eramateko esan nionean, ea zein hirigunetara joan nahi nuen galdetu zidan, Tokio hiriak hirigune bat baino gehiago duelako. Argazki bat erakutsi behar izan nion nora joan nahi nuen azaltzeko, eta argazki bakar batekin jakin zuen zertaz hitz egiten ari nintzen.

- Gusturen egon zaren herrialdea?

Tanzania edo Hegoafrika, denbora asko pasatu dudalako bertan. Hegoafrikan safaria eta *banguee jumping* (zubi saltoa) egiteko aukera izan nuen; Tanzaniatik, aldiz, Zanzibar uhartera jauzia egin nuen: leku hura ezagutzea nire amets txikietako bat zen!

- Eta gutxien gustatu zaizuna?

India. Janaria, pobrezia, zaborra leku guztietan, umeak zaborretan jolasten, behiak nonahi, txakurrak eta oiloak kaleetan zaborra jaten, pertsonak lurrean bizirik dauden jakin gabe... Zoramena. Eta esperientziarik txarrena, dudarik gabe, Agrako Gotorlekuan neska batek bere buruaz beste egiten ikusi izana.

Irati Yarza

FUB
Mediku psikiatra
Psikoterapia psikoanalitikoa
Psikosomatika
Fernando Urizar Barandiaran
Ego gain ,18-1A. EIBAR. Tel: 615 71 54 04
Bailen kalea, 9-1 ezk. BILBO. Tel: 94 416 49 06
furizar1@yahoo.com

ZK
ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza
Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

OSASUNA * ESTETIKA EDERTASUNA
Marfil
Ile-apaindegi bat baino gehiago!!
Egokitutako burua garbitzeko konketa
943 17 28 09 · Goienkale 12

SPARA ARKITEKTURA
ARKITEKTURA ESTUDIOA
BERRITZE LANAK ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK LAGUNDUKO DIZU
ZUK ERABAKI
www.spara.es
info@spara.es
Probaleku, 4 Bis, Bajo 48260 Ermua - Bizkaia
943 17 70 57

RIF
ITURGINTZA KONPONKETAK
Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

Irune Astarloa, yoga irakaslea:

“Arnasketa bakar batekin estres maila jaisten hasten da”

Irune Astarloa mallabitarra duela 4 urte pasatxo hurbildu zen yogara, eta berehala maitemindu. Indiatik datorren disziplina honekin bat egin, eta ordutik saiatzen da bizitza modu kontzienteagoan bizitzen. Aldi berean, Eibarko eta Mallabiko yoga eskoletan haren onurak zabaltzen dihardu.

Irune, erdian, yogako klase batean.

- Zer dela-eta hasi zinen yoga praktikatzen?

Uste dut denok hasten garen moduan hasi nintzela: arazo bat dugunean, pixka bat galduta gaudenean, bide bat topatzen ari garenean, estres puntu handi batzuk dituguneanan... Urte asko tabernan lan egin eta gero, nekatuta nengoen, eta etorkizunean pentsatzen hasi nintzen. Nire laguna den Marta Irustaren eskolara joaten hasi nintzen orduan, Eibarrera, eta yogaz maitemindu nintzen.

- Zuk zeuk yoga ikasketak egiteko beste maitemindu gainera...

Bai, zalantza asko izan nituen, denbora eta dirua inbertitu behar zelako, baina yogak nire estres egoeratik atera ninduen, gaztetako gertaerak aurrera eramaten lagundu zidan, eta erakutsi zidan bizitzea ez dela putakeria bat. Gauzak horrela, aurrera egitea erabaki nuen. Ikasketak hasi orduko, klaseak emateko txoko bat atondu nuen nire tabernan, eta berehala hasi nintzen Mallabian klaseak ematen. Bi urte egin nituen bertan, eta beste bi egin ditut jada eskolako frontoian. Eta oso gustura nago, izan ere norbera ezagutzeko bide polita da yoga.

- Yogaz hitz egiten denean, ariketa fisikoaz jarduten da, edo osasun mentalaz?

Biak daude oso lotuta. Yogaren helburua da kontzientzia puru batera heltzea, bizitza maitasunetik begiratzea, energiekin konexioa, alde espirituala lantzea, nutrizioa zaintzea, ondo elikatzea eta ama naturarekin kontaktatzea, besteak beste. Eta emozionalki eta mentalki ondo egoteko ezinbestekoa da fisikoki ondo egotea. Izan ere, gorputza da arimaren eramailea.

- Nola lantzen da alde fisikoa?

Jarrera ezberdinak egiten. Gehienak gorputzeko atalak luzatzeko dira, sabela eta bizkarra gogortzeko, tentsioa askatzeko, sistema linfatikoa hobetzeko, paparra zabaltzeko, guruinak orekatzeko, metabolismoa eta loa hobetzeko, drenajerako, organoetan masajea emateko...

- Eta nola eragiten da alderdi emozionalean?

Arnasketarekin: arnasketa bakar batekin estres maila jaisten hasten da. Estresatuta gaudenean gure gorputzetik kanpo gaude, egin behar ditugun gauza guztiekin aztoratuta. Gelditu egin behar gara, begiak itxi, gure barrura joan, eta arnastu. Horrekin, nahi eta nahi ez, erritmoa moteltzen hasten gara. Ikustekoa da nola datorren jendea klasera, eta nola irteten den! Eta onura horiek eragina dute bai yoga praktikatzen dutenengan, bai haien ingurukoengan.

- Zein da zure ikasleen perfila?

Denetik dago, baina gehienak emakumeak dira. Bizkarreko minarekin datoz, estresarekin... Ni haien gidaria naiz, baina eurek jakin behar dute noraino heldu daitezkeen min hartu barik. Eta bestalde, ni neu ere ikaslea naiz nire klaseetan; nire buruari ere ematen diot klasea.

- Yoga modan dago?

Bai, eta yogaren inguruko *postureo*a ere. Sare sozialetan, adibidez, neska asko agertzen dira kristoren gorputzekin, elastiko oso garestiarekin, postura oso deigarrietan... Eta zer gertatzen da alde espiritualarekin? Duela denboratxo bat Instagram desinstalatu nuen mugikorretik...

- Nolako harremana izan nahi duzu yogarekin etorkizunean?

Momentuz yogaren munduan egin nahi dut lan. Horrez gain, yogaren bitartez aske izan nahi dut: ego barik, estres barik; maitasunaz eta errukiaz bizi. Besteenganako eta neure buruarenganako iritzietatik eta usteetatik kanpo. Eta bidaiatu nahi nuke: Indiara eta Nepalera, yoga eta meditazioaren sorburuetara.

Dorleta Vidal

HARATEGIA - URDAITEGIA
MIGUEL
2012 KO BILBOKO TXORIZO TXAPELKETAN
BIZKAIKO TXAPELDUNAK
PROBALEKU 3 - 943170563
ERMUA

OINAK
LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
✆ 943 17 47 44

IZARO ABESLARIAK BI GAZTEA SARI ESKURATU DITU

Izaro Andrés, Mallabiko abeslari eta konposatzaileak, 2020ko Gaztea Sarietan bi izendapen lortu ditu, eta bietan izan da garaile. *Libre* abestiak, urteko kanturik onena izatearen ohorea eskuratu du; bestalde, *Invierno a la vista* abestiaren bideoak, Xoel López artista galiziarrarekin abestutakoak, bideoklip onenaren saria irabazi du. Sarietako bat jaso osteko bere diskurtsoa, emakumeenganako indarkeriaren gainean hausnartzeko gonbitea, ekitaldiko txalotuena izan zen eta oihartzun handia izan du sare sozialetan eta komunikabideetan.

KULTUR EGITARAUA

Abenduaren 20an, igandea
16:00etan, zinea Kontzejuzarrean txikientzat eta 18:00etan 7 urtetik gorakoentzat.
Antolatzailea: AD Mallabia FT.

Abenduaren 24an, osteguna
18:00etan, Olentzero eta Mari Domingi herriko frontoian.
Antolatzailea: Zaparrada Kultur elkartea.

Abenduaren 26an, larunbata
17:30ean, Alex Txikonen *Mendi biluzia* liburuaren aurkezpena. 18:00etan filma: *Mendi biluzia*, herriko frontoian.
Antolatzailea: Mallabiko Udala.

Abenduaren 27an, igandea
12:30ean, magoa: "Bat, bi, hiru magia", herriko frontoian.
Antolatzailea: Mallabiko Udala.
16:00etan zinea Kontzejuzarrean txikientzat eta 18:00etan 7 urtetik gorakoentzat.
Antolatzailea: AD Mallabia FT.

Abenduaren 28an, astelehena
17:30ean, Zirika Zirkus: "Zinemaz blai", herriko frontoian.
Antolatzailea: Mallabiko Udala.

Abenduaren 30ean, asteazkena
18:00etan, Skimetraje Play Pyrenees: Film labur onenen hautaketa Kontzejuzarrean.
Antolatzailea: Mallabiko Udala.

Urtarrilaren 3an, igandea
12:30ean, Golden Apple Quartet, herriko frontoian.
Antolatzailea: Mallabiko Udala.
16:00etan zinea Kontzejuzarrean txikientzat eta 18:00etan 7 urtetik gorakoentzat.
Antolatzailea: AD Mallabia FT.

Urtarrilaren 7an, osteguna
18:30ean, hitzaldia: "Eukalipto landaketen eraginak", Kontzejuzarrean. Hizlaria: Arturo Elosegi.
Antolatzailea: Mallabiko Udala.

Urtarrilaren 8an eta 9an, ostirala eta larunbata
16:00etan, gazteentzako rap tailerra, Kontzejuzarrean.
Antolatzailea: Nahikari Emakume elkartea.

Urtarrilaren 15ean, ostirala
18:00etan, antzerkia: *Esnatu Naiz* kabareta, Kontzejuzarrean. Antolatzailea: Mallabiko Udala.

FEREDU
SOLUTIONS S.L.



* HEZETASUNAK
* ERREHABILITAZIOA
* INPERMEABILIZAZIOAK
* MANTENIMENDUAK
* IGOGAILUAK
* ERREFORMAK
* FATXADAK
* ITE
* TEILATUAK
* GARBIKETAK

www.feredusolutions.com
699 476 112 / 946 423 649 ERMUA

Abeletxe egoitzako nagusien senideek zentroaren kudeaketa salatu dute

COVID-19aren lehen olatuan Abeletxe Egoitzako zuzendaritzak egindako kudeaketa "negargarria" salatzeko, egoiliarren hainbat senidek elkarretaratzeak egiten dituzte ostegunero egoitzaren ondoan irailetik. Haien esanetan, 50 nagusi inguru zendu dira Abeletxen martxotik, eta familiek ez dute informaziorik jaso, edo informazio kontraesankorra jaso dute. Dagoeneko 12 elkarretaratze eta manifestazio bat egin dute.

"Pandemiak gogor jo ditu Bizkaia osoko zaharren etxeak, baina Abeletxe izan da kasu larrienetako bat. Zentroko egoiliarren ia erdia hil da, eta zuzendaritzak kudeaketa negargarria egin du". Hitz horiekin hasi zen azaroaren 26an Abeletxe Egoitzako nagusien senideek antolatutako manifestazioan irakurritako idatzia, martxotik gaur arte gertatutakoan oinarrituta dagoena.

Martxoan, pandemiak eta itxialdiak bisitak galarazi zituztenean, egoitzari lotutako guztia "gezur eta desastre hutsa izan zen", diote familiek. Desinformazioa eta informazio kontraesankorra salatu dute, eta susmoa dute pertsona nagusiek ez zutela heriotza duina izan. "Martxoan, 10 eguneko epean, 31 lagun hil ziren, atera kontuak! Pandemia betean egoitzan ez zegoen mediku bat ere ez, eta erizaintza zerbitzua ere penagarria izan zen". Anabasa honetan, senideek ez dute zalantzan jartzen bertako laguntzaileen lana, eta nabarmentzen dute oso baliabide urriekin lan egin behar izan zutela, babes-ekipoei eta baliabide pertsonalei dagokienez batez ere.

Euren kexak egoitza kudeatzen duen Vitalitas enpresako zuzendaritzari eta Bizkaiko Foru Aldundiari daude zuzenduta, argitu nahi dutelako zergatik senideek ez zuten heriotza duina izan, zergatik ez zituzten ospitalera eraman, zergatik ospitalera bidali zituzten batzuk deshidratazio eta desnutrizio egoeran zeuden, zergatik kutsatu ziren 70 langile, eta zergatik oraindik ere Ermuko zaharren etxea egoera penagarrian dagoen. Senideek azaldu dutenez, asistentziazko-zerbitzuen pribatizazioak (egoitzetakoak kasurako) negozio bihurtu du zaharren zainketa, eta COVID-19ak erakutsi du "zainketetan aurrezteak heriotza dakarrela".

Zuzendaritzaren erantzuna

40 senide horien arabera, erantzunak ez dira heldu. "Gutako batzuekin jarri dira harremanetan, kasualitatez-edo, komunikabideetan agertu izan garenokin, baina euren proposamen bakarra izan da gure senideei omenaldia egitea —azaldu dute kideek—, baina ez dugu omenaldirik nahi. Ostegunero gure nagusien siluetak jartzen ditugu zaharren etxeko atean, eta segituan kentzen dizkigute. Ez al da hori ere omenaldi bat?", damutzen dira. Eurek erantzunak nahi dituzte; erantzunak eta barkamen eskaera bat: "Orain arte inork ez digu esan gauzak ez zituztela ondo egin, inork ez du bere gain hartu erantzukizuna edo errua", esan dute haserre.

Bestalde, senideek Udalaren babesa ere eskatu izan dute, baina eskumen eza argudiatu du Udalak. "Hil diren pertsonak, bertan bizirauten dutenak eta etorkizunean joan daitezkeenak Ermuko bizilagunak dira, beraz, uste dugu Udalak zeresana izan beharko lukeela", adierazi dute.

*Drogetenitturri aldizkaria Abeletxeko zuzendaritzarekin eta Vitalitas enpresako prentsa arduradunekin jarri da harremanetan, baina aldizkaria inprimategira bidali orduko, ez dugu erantzunik jaso.

Dorleta Vidal

Ehunka ermuarrek esan zioten agur Euskaraldiari

Euskaraldiaren 2. edizioak zapore gazi-gozoa utzi die antolatzaileei. Gozoa, parte-hartzaile kopuruari erreparatuta; gazia, COVID-19aren eragina oso nabarmena izan delako kalean. Nolanahi ere, azaroan hasi eta abenduaren 4an bukatu zen ariketa sozial erraldoi honi agur esateko, ekitaldi jendetsua burutu zen plazan.

Irune Basagoiti ermuarraren bertsoek Euskaraldiaren amaiera girotu zuten, haren inguruan hainbat ekintza burutu ziren bitartean. Tartean, euskara ikaslea den Virginia Gonzálezek eta *arigune* bateko kidea izan den Iván Palaciosek amaiera mezua irakurri zuten. Jarraian, plazan bildutako guztiek argazki erraldoia atera zuten Euskaraldiko "aho" eta "belarri" bizidunekin, eta *24/7* abestia dantzatu zuten korroan, emandako urratsei jarraituta.

Hizkuntza ohiturak aldatzeko xedea duen ariketa sozial hau bukatuta, antolaketan jardun duen talde motoreak balorazioa egin du, eta hiru alderdi nabarmendu ditu.

Alde batetik, edizio honek ekarri duen berrikuntza nagusian jarri dute arreta antolatzaileek, *arigunee*tan, alegia. Ermuan 65 *arigune* sortu dira (hau da, euskaraz lasai aritzeko guneak), tartean dendak, tabernak, kirol taldeak, gizarte mugimenduetako elkarteak, enpresa txikiak.... Antolatzaileek oso positibotzat jo dute kopuru hori. "Ermuan eguneroko bizitzan ditugun eta bertan euskaraz hitz egin dezakegun entitate horiek identifikatu direlako, eta euskararen sarea handitu egin delako".

Euskaltzaleen Sarea

Bestalde, Ermuko Euskaltzaleen Sarearen lana goraipatu dute. 2016an sortu zen talde hau, Euskal Birusak sustatuta, Ermuan Bagararen antolaketan lan egiteko, eta herritar euskaltzalez osatuta dago. "Haiei esker lortu dugu Euskaraldiak aurten ere aurrera egitea. Haiek arduratu baitira identifikagarrien banaketa egiteaz, mahaietan txandak egiteaz, amaierako ekitaldiaren antolaketaz...", adierazi dute Euskaraldiko Ermuko arduradunek.

Azkenik, antolatzaileek onartzen dute egungo osasun egoera dela eta, Euskaraldiaren bigarren edizio hau ez dela izan duela bi urtekoa bezain ikusgarria: "Herria, kaleak, herritarrak... triste eta kezkatuta ikusi izan ditugu —aitortu dute—. Hala ere, Euskaraldiko banderek, musukoek eta txapek kolorea eman diote herriari, eta euskara kalera atera dugu". Horregatik guztiagatik, antolatzaileek eskerrak ematen dizkiete *ahobizi* edo *belarriprest* bezala izena eman eta hizkuntza ohiturak aldatzeko saiakera egin duten guztiei. Taldea aurrera begira dago jada, eta egitasmoaren hirugarren edizioari heltzeko gogotsu.

Naroa Beitia
eta Dorleta Vidal

CITROËN
AUTOS AMEDI
Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefonoa 943 17 04 14

ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA
PALACIOS SM
ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
GREMIOEN KUDEAKETA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)
info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com
660 72 95 03 • 659 75 74 59 • 943 53 92 23

Desirak
PSIKOLOGIA
ONGIZATE PERTSONALEKO ZENTROA
Nahia Rojo Bustinduy
Psikologoa eta Sexologoa
Hitzorduak: 688 85 18 95

GABONETAKO E

EROSKETA GIDA

nane
moda
ONLY. JACK&JONES MORGAN MORGAN DE TOI !SOLID DENMARK
Torrekua kalea 2 · ERMUA · 943 17 34 66
www.facebook.com/nane.moda

ZAPA TXIKI
C/ Zubiaurre, 20 - ERMUA

SAGARDUI poltsak
Poltsak, karterak, gerrikoak, manikurak, maletak, osagarriak eta opariak.
bizkaia BONO DENDA
943 17 03 05
b.sagardui@gmail.com
Zubiaurre 29
48260 Ermua (Bizkaia)

SFERICO KIROLAK
Adin guztietarako kirol-jantzi eta oinetakoak.
Ekipazioak, estanpazioa, jaietarako eta ezkondu aurreko agurretarako arropak, kartelak, flyerrak, giltzatakoak, eta askoz gehiago....
Zubiaurre 14 · ERMUA
943 030 448

F. PASCUAL
Arane, 6
Tlf.: 943 20 61 64
Fax:943 20 85 43
20600 EIBAR
(Guipúzcoa)
VIRGINIA PASCUAL
MUEBLES DE COCINA INTERIORES
Zubiaurre, 36-38 (bajo)
Tel y Fax: 943 17 68 28
48260 ERMUA (Vizcaya)
www.cocinaspascual.com

Argintxu
Hot dog eta izozki naturalak ditugu!
Erdikokale 3 · ERMUA
943 57 03 12 / 648 85 05 38

ITZE
OPTIKA
AUDIO
Probaleku 7 · ERMUA
943 17 46 51

Aurten, inoiz baino gehiago, erosi herriko dendetan!

IZAR YARZA ERMUARRAK IGO EKIMENAREN SARIA JASO DU

Euskal Birusak eta Topaguneak elkarlanean antolatutako Irakurri, Gozatu eta Oparitu egitasmoa abenduaren 9an bukatu eta gero, liburu elektroniko bat zozketatu zen Ermuko parte-hartzaile guztien artean. Izar Yarzari egokitu zaio sari hau.

DANOBATGROUPEKO LEHIAKETA AMAITU DA

"Batzen gaituen esentziak izan dezala presentzia" lemapean Danobatgroup kooperatiba taldeak bi lehiaketa antolatu ditu 2020ko Euskararen Eguna ospatzeko, bata bertako langileei zuzendutakoa eta bestea kooperatibak dituen herrietako gizarteari zabaldutakoa, tokiko aldizkariekin elkarlanean. Gizartera zabaldutako ekimenean Azkoitiko Jaione Arangurenek eta Alegria Dulantziko Irune Lopezek eskuratu dituzte Errigorako saskiak. Danobatgroupek euskararen erabileran eragiteko konpromisoa du, eta egunerokoan euskara erabiltzeaz gain, hiztegi teknikoa ere lantzen ari da: www.danobatgroup.com/eu/.



Ostalariek protesta abiatu dute Osasun Sailaren azken erabakien kontra

COVID-19arekin kutsatutakoen tasaren igoera ikusita, hilaren 11rako tabernak zabaltzearen baimena indargabetu eta Ermuko ostalaritza itxita jarraitzeko agindua argitaratu zuen Osasun Sailak bezperan bertan. Generoa erosita, kamerak martxan, Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedienteak altxatuta... Ilusioaren ostetik amorrua, inpotentzia eta egonezina piztu zuen aginduak "jada kolokan" zegoen sektorean. Euren egoera "dramatiko" eta "jasangaitza" salatzeko asmoz Jose Arronategik, Herga tabernako jabeak, itxialdia hasi zuen bertan, gainontzeko tabernari zein herritar ugariren elkartasuna eta babesa jasoz. "Itsasontzi berean goazelako guztiok eta ostalaritza hondoratzen bada, herria hondoratzen da, bizia galtzen duelako", arrazoitu du Arrok. Sinadura bilketa ere abiatu dute, Udalaren bitartez euren errebindikazioak Eusko Jaurlaritzara helarazteko, 1.500 inguru bilduz.

"Konfinatoia" film laburren lehiaketak baditu irabazleak

Euskal Birusa Euskara Elkarteak eta Ermuko Gazte Asanbladak Ermuko film laburren lehen lehiaketa antolatu zuten abenduaren hasieran, "Konfinatoia" izenburupean. Bi kategoria ezarri zituzten, eta guztira 10 lan jaso dituzte. 16 urtetik 18 urtera bitartekoen mailan lan hauek jaso dute saria: "COVID garaiak" (1. saria, 100€), eta jarraian "Eta orain zer?" eta "Izengabeak" (50€ bakoitzak). Aldiz, 18 urtetik gorako kategorian: "Ez bilatu, badaukazu" (1. saria, 150€), eta jarraian "Konfijokoa", "Puntx" eta "Isiltasuna" (50€ bakoitzak). Juanma Rodríguez eta Klemen Corredera artista ermuarrek osatu dute epaimahaia, eta lan gehienen kalitatea goraipatu dute. "Baloratu dugu filmek zer transmititu nahi duten, eta hori transmititzea lortzen duten. Baita ere zer sentiarazi diguten, hunkigarriak diren", azaldu du Rodríguezek. Interpretazio batzuk nabarmendu ditu aktore ermuarrak, hala nola parte-hartzaileen jarrera ona, filmak ikusgarriagoak egiten dituzten efektu batzuk, eta edizioaren kalitatea. Soinua, aldiz, hobetu beharreko kontua dela azaldu du: "Ez da erraza, baina trikimailuak erabili daitezke". Bestalde, "Eta orain zer?" lanak publikoaren saria jaso du (50€), YouTubeko ikustaldi gehien izan dituen filma izan baita. Izan ere, egile gazte horien lanak ikusi nahi dituztenek YouTubera jo dezakete, hala nola Euskal Biruseko eta Gazte Asanbladako sare sozialetara. Sari banaketa abenduaren 18an burutu zen Lobianon.

enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK
Tel.: 94 659 01 41 - 618 89 29 60
E-maila: info@enolimp.es
48620 Ermua (Bizkaia)
Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak
www.enolimp.es

Torrealday
ASESORES CONSULTORES
ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA
Goienkale Kalea, 9, Ermua • 943 17 44 35
www.torrealday.es

Murala margotu dute Ermua BHIn eusLider egitasmoaren barruan

2019-2020 ikasturteko eusLider proiektuari amaiera emateko, mural erraldoia margotu berri dute Ermua BHI Institutuko frontoian. AEK-k sustatzen duen egitasmo honen helburua da gazteen hizkuntza ohiturak aldatzea, besteak beste, eta 2020-2021ean ere martxan egongo da.

2019-2020 ikasturtean murgildu zen Ermua BHI Institutua aurrenekoz eusLider proiektuan. AEK-k bultzatu eta Ahize hizkuntza aholkularitzak koordinatzen duen proiektuaren xedeak dira gazteek euskararen inguruko hausnarketa egitea, hizkuntza ohiturak aldatzea eta euskararen erabilera informala bultzatzea. Helburu horiek guztiak lortzeko, ikastetxeetako DBHko 3. mailako hainbat ikaslek hizkuntza lidergoa hartzen dute eta, kontzientziazio-saio batzuk egin eta gero, bigarren fasean jarduten dute gainontzeko ikasleekin, hau da, fase praktikoan.

Bigarren fase horretan ikasleek ekintza sozial bat prestatu behar dute, herrian zabalduko dutena, baina 2019-2020 ikasturtearen amaieran, COVID-19aren eraginez, ezinezkoa izan zen prestatutakoa burutzea. “Ermuan Bagara ekimenaren baitan ekitaldia egiteko asmoa zuten ikasleek —azaldu dute Ermua BHIko zuzendari Kepa Antxiak eta proiektuaren arduradun Juanmi Bravok—, baina bertan behera laga behar izan zuten”.

Orain, urte erdi geroago, eta proiektua amaitutzat jotzeko, ekimen bat burutu dute, nahiz eta publikoa ez izan. Ikasleen artean ikurritz lehiaketa abiatu zuten azaroan (lelo lehiaketa, alegia), eta guztien gainetik honako honek irabazi zuen: “Irri batekin euskara gurekin”. Esaldi horrekin, murala egin dute institutuko frontoiko horma batean, Gorka González muralista ermuarrari esker. Gonzálezek gazteen aurrean margotu zuen murala, eta aukera eman zien espraiekin jarduteko.

Boluntarioak lanean

Urtarriletik aurrera, eusLider jarriko da martxan berriro ere Ermuan BHIn, eta orduan, DBHko 4. mailakoak izango dira 3. mailakoei formakuntza saioak emango dizkietenak. “Momentu honetan 20 boluntariotik gora ditugu formakuntza horiek emateko. Hortik beste boluntario batzuk sortuko dira, hurrengo urtean formazioa emateaz arduratuko direnak —azaldu du Antxiak—. eta dinamika hori urtero errepikatuko da”.

Institutuko zuzendariaren esanetan, eusLider bide eraginkorra izan daiteke gazteen hizkuntza ohituretan eragiteko. “Guk, irakasleok, ikasleekin euskaraz hitz egiten dugu, baina ezberdina da euskara bultzatailea euren gertuko bat bada, adin berekoa-edo. Gertutasun handiagoa ikusten dute, eta asmo horrekin ari gara honetan”.

Dorleta Vidal

solozabal
tabakoak
torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

arral97.com
arral
Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala
- Luis Cañas familia - Pazo Señorans - Txakoli Akarregi
- Añada Real - Vicente Gandía - Milana
- Yllera taldea - Oriol Rossell - La Loca Juana
- Gomez Cruzado - Astobiza txakolina - nítida
arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

J O S U G O M E Z

26 urteko gaztea. Seme bakarra. Biologoa da eta gaur egun Bigarren Hezkuntzako irakasle bezala dihardu lanean Durangon. Antxitxiketan eta Txindurri taldeetako aurpegi ezaguna.

- Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa?

Ermuan, lagunekin kalean jolasten denbora guztian, zoriontsu. Beti kalean.

- Zertan ezberdintzen da zuen gaztaroa gaur egungoarekin alderatuta?

Elgoibarrera joateko ohitura hori galdu zen. Gazteak normalean lokaletan batzen dira eta lagun-arteko harremanak mugikorraren bitartez elikatzen dituztela ikusten da.

- Umetan zer izan nahi zenuen?

Medikua, abokatua eta zientzialaria. Biologoa izatea ez nuen argi izan Batxilergora arte.

- Zure lehen lana?

Uste dut udalekuetan izan zela nire kontratupeko lehen lana. Ermuko udalekuetan, Antxitxiketan Aisialdi eta Begirale taldean.

- Gaur egun non zaude lanean?

Amatasun ordezkapen bat egiten ari naiz 2019tik Durangon, Maristak Institutuko Batxilergoan.

- Lan horretan zer da gehien estimatzen duzuna?

Nire lana bokaziozkoa da, asko gustatzen zait gauzak azaltzea eta irakaslea izatea. Estimatzen dut nire ikasleek duten adin tartea (16-18 urte). Adin tarte oso ona da, eta uste dut txikiagoak izanez gero, zailagoa izango litzatekeela.

- Eta gutxien?

Klase batzuk elebidunak izan behar direla. Maristak zentro kontzertatua da eta ez daukat plazarik. Nik dena euskaraz eman nahiko nuke.

- Zer da lan honen atzean dagoena?

Ordu asko sartzen ditugu ikasleen hobe beharrerako. Jendeak uste du klasea eman eta azterketak zuzentzea dela guztia, baina horren atzean mila gauza daude azaleratzen ez direnak.

- Zer egiten duzu aisialdian?

Lagunekin egon, poteoan ibili, mendira joan… Kaleko mutila naizela esan daiteke. Horrez gain, oso gogoko ditut euskal dantzak eta instrumentuak jotzea. Ermuko Bandan jotzen dut eta Txindurri Dantza Taldean ere banabil.

- Zein instrumentu jotzen duzu?

Saxofoiarekin hasi nintzen. Baina autodidakta naiz eta txistua, zeharkako txirula, panderoa, alboka eta txalaparta jotzen ikasi dut. Nire helburua da gero eta instrumentu gehiago jotzen ikastea.

- Bidaiatzea gustuko duzu?

Leku askotan egon naiz, baina Thailandiara egin nuen bidaia izan da bereziena. Biologia gradua amaitzerakoan, klaseko 8 lagun Thailandiara joan ginen eta 5 aste igaro genituen bertan, zirrikitu guztiak ezagutzen. Hurrengo bidaia Japoniara edo Latinoamerikara egitea gustatuko litzaidake.

- Baduzu biziorik?

Gezurrak esatea, brometan, barrea eragiteko helburuarekin.

- Zer da egunero kale egin gabe egiten duzun hori?

Aukera badut, lagun edo kuadrillako batekin kafe bat hartu. A, eta dutxatu!

- Zerk eragiten dizu barrea?

Orokorrean denak. Txiste txarrenek eta munduko bakarrizketarik onenek! Ahal den neurrian egunerokotasunean umorea bilatzen dut.

- Zer albiste gustatuko litzaizuke irakurtzea?

Ermuko txosnak irekiko dituztela plazan, 2021ean adibidez.

- Berriro jaioko bazina…

Gauza gutxi batzuk aldatuko nituzke, baina gaur egun dudan bizitza baldintzatuko ez luketen aldaketak izango lirateke.

Irati Yarza

Iberikoetan espezialistak
Mayte
VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

IZASKUN TXURRUKA
Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia
94 317 66 90
peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

Ermuko errugbiko jokalariak:

“Errugbia ez da zutik eta siku egoteko kirola”

Ander Fernandez, Ibon Vega, Claudio Rodrigues eta Mikel Kaye ermuarrak Eibarren ibiltzen dira errugbian. 18 eta 20 urte bitarte dituzte, eta orain dela 9 urte hasi zen beteranoena. Berriena, aldiz, duela 4.

- Nola hasi zineten errugbian?

Ander Fernández: Telebistan ikusi nuen eta gogoa piztu zitzaidan. Aitari esan, probatzera joan, eta geratu nintzen.

Ibon Vega: Gero ni joan nintzen, Ander zegoelako. Futbola ez zitzaidan gustatzen eta errugbian hasi nintzen.

Claudio Rodrigues: Errugbian jokatzen dutenak eskoletara joaten dira klaseak ematera eta kirola erakustera. Ni Ermua BHIn nengoenean etorri ziren, interesa piztu, probatu, eta geratu nintzen.

Mikel Kaye: Eta ni, Claudio bezala. Ikastolara etorri ziren eta, beno, Ander eta Ibon errugbian zeudenez joatea erabaki nuen.

- Zenbat entrenatzen duzue astean?

Senior mailan gaude, eta hiru entrenamendu arrunt ditugu astean. Horrez gain, esaten digute astean hirutan gimnasiora joateko.

- Zer txapelketetan edo ligan zabiltzate?

Ohorezko B mailan gaude. Futboleko 2. maila izango balitz bezala.

- Nolakoa izaten ari da aurtengo denboraldia?

I. V.: Ohi bezala entrenatzen dugu, baina ezin gara dutxatu. Etxera zikin joaten gara!

A. F.: Astero egiten ditugu test azkarrak partiduetarako, eta arau batzuk ere aldatu dituzte, kontaktu gutxiago egoteko.

M. K.: Gainera, bi asteetan partidak ditugu, eta hurrengo bi asteetan atsedena hartzen dugu.

C. R.: Horrez gain, gimnasioan maskara erabiltzen dugu, txikia delako eta asko garelako. Kanpoan ez, espazio zabala delako.

- Errugbia kontaktuko kirola da. Mingarria da?

A. F.: Ez, baina bai. Suposatzen da ez duzula minik hartu behar, teknika bat daukazulako landuta, eta kolpeak kontrolatuak direlako, baina beti dago norbait...

M. K.: Jendeak uste du errugbia arriskutsua dela, baina gehienok ez dugu lesiorik izan. Kolpeak bai, baina lesio larririk ez.

- Nola ikusten dute gazteek errugbia?

I. V.: Ez da oso kirol ohikoa herrian, jendeak futbola ikusten du. Pentsatzen dute kirol arriskutsua dela, baina ez da.

M. K.: Izan ere, jendeak ez du errugbia eta futbol amerikarra desberdintzen. Futbol amerikarrean kolpea ematera doaz; errugbian oratu eta bota egiten dugu, adibidez. Baditugu lagunak errugbia probatu nahi izan dutenak, eta gurasoek ez diete laga.

- Momenturen bat aipatzekotan…

C. R.: Nire lehen urtean, 16 urtetik beherako kategoriako partida bat galtzen ari ginen. Entsegua egin, taldeko jokalari bat tristetu zen, eta negarrez hasi. Benetan sentitu nuen.

A. F.: Nik gogoan daukat iaz, azkeneko partiduan, jaisteko mugan geundela. Partida hasi baino lehen gure familien bideoak-eta jarri zizkiguten... eta partidua azken jokaldian irabazi genuen. Polita izan zen!

M. K.: Unben entrenatzen dugu, sekulako hotza egiten du, eta orain neguan gogoratuko ditut elurrarekin, txingorrarekin... izango ditugunak. Errugbia ez da zutik eta siku egoteko kirola.

- Zeintzuk dira zuen asmoak aurrera begira?

Akatsak hobetu, maila mantendu eta, ahal den heinean, gora egin.

Jon Saez

Enter informática
SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA
VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT
ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.
www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA
San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

Beldurra

Libe Solozabal

Beldurra egoera ezezagun edo arriskutsuen aurrean babesten gaituen oinarrizko emozio primarioa da. Ingurura egokitzen laguntzen digu, bere funtzioa izaki bizidunon biziraupena bermatzea baita. Gure adimenak mehatxu bat sentitzen duenean, organismoa aktibatu egiten du eta erantzun bat ematen du. Erantzuna egoera horretatik ihes egitea izan daiteke, defendatze estrategiak martxan jartzen adibidez. Edo kontrakoa, paralizatuta gelditzea. Eta horrek guztiz deuseztatzen gaitu pertsona bezala.

Orduan, beldurrak babestu ala mugak jartzen dizkigu? Suposatzen da espezie moduan honaino iritsi bagara ingurura egokitu garelako izan dela, eta eboluzioan beldurrak funtsezko papera izan duela. Orain beldurraren garaia da mundu-mailan. Hobe esanda, paralizatze garaia. Eta ez naiz zerbitzuez ari, ez, norbanakoez baizik. Ezeztatuta geratu gara, giltzapetuta, gure baitan itxita neurriei men eginez eta bizitzera arnegatuz. Konturatu barik minutu oro, egun oro ere gure bizitzaren parte dela, nahiz eta sasoi ezatsegin batetik pasatzen ari garen. Historikoki ez da sentimendu hau kolektiboki esperimentatzen dugun lehen aldia, ordea.

Begien bistan dago ezarritako ordena gabeziaz josita dagoela eta jasangarria ez dela, erabat. Eta kontrol soziala gehitzearen albo kaltea berekoikeria areagotzea izan dela. Hala, izua ingurura kutsatzeko gaitasuna daukagun modu berean, beldurra kontrolatzeko gaitasuna badaukagu. Nolanahi ere, ez da prozesu erraza. Barneak hartzen dizkiguten kezkei aurre egiteko, ikarak identifikatu eta ideiak deseraiki egin behar direlako.

Krisi garaiek zulo baten traza duten arren, badira aukeren kontzientzia hartu eta aldaketei eusteko uneak. Bada ohiturak, kontsumoa eta bizi-estiloa planteatzera garamatzan garaia. Kolektiboki. Bada emozioei eta oraindik badiren gauza gizatiarrei eusteko garaia. Bada beldurraz baliatu eta Silicon Valley-k gurekin akabatu baino lehen amesten dugun, sinisten dugun eta nahi dugun munduari forma emateko garaia. Baina, garai batetik bestera dauden aldaketetara egokitzea urrats kolektiboa da.

Orduan, beldurrak babestu ala mugak jartzen dizkigu?

> “Ezeztatuta geratu gara, giltzapetuta, gure baitan itxita neurriei men eginez eta bizitzera arnegatuz”

Komunitateak
San Pelayo
Aholkularitza juridikoa
Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelaio 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

URRETA burdindenda
Etxea · Giltzak · Tresneria · Sarrailagintza · Brikolajea · Kit altzariak · Errailak
Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

ARRIETA CORDEVI
Etxetresna elektrikoak, telebistak, musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate ezin hobean.
VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

LANGILE BILA

Ile-apaintzailea behar da.
✆619928881.

LAN BILA

Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Astelehenetik ostiralera. Orduka.
✆ 681 310 989.

Neska gaztea, arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo garbiketa lanak orduka egiteko. Egunez zein interna bezala.
✆ 632 044 001

Neska eskaintzen da umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanetarako. Esperientziarekin. Orduka, jardun erdia edo osoa. Berehala hasi naiteke lanean.
✆ 632 41 53 74.

Abenduaren 29an
Zorionak Óscar!! Ondo pasa zure urtebetetzean. Muxu erraldoi bat Lucía, Libe eta amatxoren partez. Maite zaitugu aitatxo pistatxo.

Abenduaren 11n
Zorionak Urko! 13 urte jada!! Jarraitu zaren modukoa izaten eta gure bizitza alaitzen. Asko maite zaitugu.

Azaroaren 24an
Zorionak zuri zorionak zuri zorionak Mikel! Etxeko txikiak 3 urte handi!!! Zorionak eta muxu handi-handi bat etxeko denon partez!!

Urtarrilaren 2an
Zorionak Laida! 6 urtetxo beteko dituzu laster, neska handi! Oso ondo pasatu zure egunean. Maite zaitugu!

Zorionak Gorka!
Abenduaren 16an 5 urte handi bete zenituen! Orain arte bezain alaia izaten jarraitu! Patxo handi bat familia guztiaren partez.

Abenduaren 30ean
Zorionaak Aratz!! 4 urtetxo!!! Ondo pasau zure egunian eta segi beti bezain alai. Maitxe maitxe.

Abenduaren 21ean eta urtarrilaren 16an
Zorionak Frida, Bosco eta Goya!! 6 eta 9 urte bete dituzue. Muxu pila etxekoen partez eta segi horrela. Txapeldunak zarete, benetan. Zorionak kuadrilla!!

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezu elektronikoa helbide honetara:
drogeten@gmail.com

Azken eguna: Urtarrilaren 20a

Abenduaren 2an (Maier), abenduaren 19an (Aiora) eta urtarrilaren 28an (Aiur)
Zorionak hirukote, jarraitu horrela! Besarkada erraldoia familiaren partez.

SAN ANTONIO
OKINDEGIA
GOZOTEGIA
Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63

AIZ
Garraioak, S.L.
☎ 636 95 83 39 (JULEN)

AMAIA
HARATEGIA
Bertoko Okelak
Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen

MALLABIA 1959

Argazki hau 1959ko apirilaren 26an aterata dago Trabakun. Argazkian agertzen diren emakumeek Julia Zabalaren ezkondu aurreko agurra ospatu zuten. Argazkian agertzen dira: Maria Urkidi, Hilaria Zabala, Pilar Lazpita, Maria Gallastegi, Dolores Gallastegi, Juanita Ugarte, Martina Mugarza, Emilia Malaxetxebarria, Julia Zabala, Bitoria Arana, Rufina Gorrotxategi eta Tomasa Solozabal.

Argazki honetan agertzen diren emakume batzuen izenekin zalantzak izan ditugu. Daturen bat zuzentzeko edo argazki zaharrak bidaltzeko, drogeten@gmail.com helbidera idatz daiteke. Gogoratu argazki hauek 25 urte izan behar dituztela gutxienez.

ERMUA 1956

Atzean data ipintzearen ohiturari esker dakigu argazkia urte horretako maiatzaren 6an atera zutela. Probalekuan erretratatu ziren ezkerreko Mª Luisa Crespán eta eskumako Ana Mari de la Calle, denboratxo bat aurretik bere jatorrizko Tuteratik etorritakoa lehenengoa eta Burgosko Padilla de Arribatik bigarrena. Probalekuan luzaroan biziko ziren bi lagunak eta Ana Marik bertan jarraitzen du gaur egunean ere. Bien erdian Sultán txakurra, Tudelanoa hau ere; etxekoak lagun, trenez egin zuen Nafarroako muturretik Ermura arteko bidaia. Hil zenean, Txabisolan lurperatu zuten, landak eta sagastiak besterik ez ziren parajean eta gerora VI. Mendeurrena kaleko etxemultzoak izango zirenak.

Eskuz egindako terapietan adituak
ARTROS
FISIOTERAPIA MANUAL
Probaleku 5 · 48260 · Ermua
617 680 156
www.fisioterapiamanualartros.com

Zure publizitatea:
DROGETEN ITTURRI
Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria
943 179350 / 688 632876
drogeten@gmail.com

SAN PELAYO
HORTZ KLINIKA · CLÍNICA DENTAL
Zuri egokitzen den odontologia
La odontología que se adapta a tí
Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI Col. nº 1264
· P.A.D.I
· IMQ
· SANITAS
· DENTYRED
· AZKARAN
· OCASO
943 17 04 04
info@clinicasanpelayo.com
San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)

Egun gutxi geratzen dira urte bukaerako ospakizunetarako. Pentsatu duzu non egingo dituzun Gabonetako erosketak?



- Herriko dendetan: 32 boto.
- Herrian, herritik kanpo eta Interneten: 15 boto.
- Herritik kanpo eta Interneten: 5 boto.

Abenduaren 10etik 16ra egon da inkesta honetan parte hartzeko aukera, eta guztira 52 boto jaso dira.

Tasio eta Sabino



Kopi-Fax
FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN
Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

uriarteasesores
Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza
Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia

ZINEA

Hilaren 2tik 5era
Hilaren 9tik 12ra
Hilaren 16tik 19ra
Hilaren 23tik 26ra
Hilaren 30etik 2ra
Ermua Antzokian.
19:00etan.

ZINE-KLUBA

Hilaren 7an
Hilaren 14an
Hilaren 21ean
Hilaren 28an
Ermua Antzokian.
19:00etan.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilaren 3an:
"Dragoiaren gidaria"
Hilaren 10ean
Hilaren 17an
Hilaren 24an
Hilaren 31n
Ermua Antzokian.
17:00etan.

MUSIKA

Hilaren 15ean:
Kontzertua:
Eñaut Elorrieta.
19:00etan.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 10€

Hilaren 29an:
Kontzertua:
Dani Fernández.
19:00etan.
Ermua Antzokian.
Sarrerak agortuta.

ANTZERKIA

Hilaren 22an:
"Como hace 3.000 años",
Héctor Alterioren eskutik.
22:15ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 10€

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Hilaren 2an:
Umeentzako ipuin-kontaketa: "Gabonak munduan", Lur Kortaren eskutik.
16:30ean eta 19:00etan.
Lobiano Kulturgunean.

Hilaren 4an:
Umeentzako kontzertua: "Goazen 7.0", Pausokaren eskutik.
12:30ean eta 16:00etan. Ermua Antzokian. Sarrera: 6€

Hilaren 5ean:
Errege Magoen harrera eta gutunak ematea.
18:00etatik 20:00etara.
Errotabarri, Orbe Kardinala eta San Pelaio plazetan.

Hilaren 6an:
Umeentzako musikala: "Musikarium", Oihan Vega eta Baga-Bigaren eskutik.
17:00etan.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 4€

Hilaren 16an:
Umeentzako ipuin-kontaketa ingelesez.
17:30ean.
Lobiano Kulturgunean.

Hilaren 30ean:
Umeentzako ipuin-kontaketa.
17:30ean.
Lobiano Kulturgunean.

ERAKUSKETA

Hilaren 18tik 31ra:
Argazkiak: "Euskal Herriaren inguruan".
J. Carlos Ciaurriz Goñiren lanak.
18:00etatik 20:00etara.
Lobiano Kulturgunean.

Patxi López

TXINDURRI TALDEA
Tokian tokiko
Drogetenitturri, 295 zk.

PRO arraindegia
ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK
Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

KRABI
Ileapaindegia
Estetika
Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

ALBOKA MUSIKA ESKOLA
- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxeloa
- Bonbardinoa
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoaia musikala
- Klarinetea
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua
Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

ERMUA

PARRIAUNDI - Marqués de Valdespina, 10

Euskadi, auzolana, bien común

hazi

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

GREMIOEN GIDA



ITURGINTZA

ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA
LUIS VALLE

Bainugelen erakusketa
943 17 15 56

Tailerra
943 17 23 56

Goienkale z/g

ERROTULAZIOA

ROTEK
RÓTULOS

Argi errotuloak · 3D letrak · Ibilgailuak
Erakustokiak eta azokak · Formato handiak
Publizitate kanpainak · Led pantailak

943 17 00 36
www.rotekrotulos.com

ROTEK
LED PANTAILAK

PERTSIANAK

ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

ETXETRESNAK

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

ELEKTRIZITATEA

βBETA

ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13

943 17 65 25
689 23 31 71

GARBIKETA

enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel.: 94 659 01 41 - 618 89 29 60
E-maila: info@enolimp.es
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak
www.enolimp.es

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com